

Kaixo, laztana:

Badira bost urte elkar ezagutu genuenetik. Gogoan iltzatuta daukat egun hori, aitona-amonen etxean hamarkadetan mugitu ez diren koadroak hormari josita dauden bezala. Hamasei urte bete nituen egun euritsu horretan eta aitona, berriz, laurogeita bi. Hodeiak ura turrustaka zeuden, etxekoak ospakizunean, gazi-gozo. Gazi, bidearen amaierara hurbiltzen ari zelako zenbat urte betetzen ari zen ahaztuta zeukan aitona. Gozo, heldutasunerako bidean urrats bat gehiago ematen zuelako gazteak. Gazi-gozo dio esaerak, baina gazi barik, garratza edo latza ere izan zitekeen; eta gozoren ordeaz, atsegina edo laketgarria. Azken batean, bizitzako une guztiek nahi beste zapore, ikuspegi, ñabardura eta aldaera dituzte, so egiteko darabiltzagan beturrekoen arabera.

Gaztearen etorkizuneko ametsengatik eta aitonaren ahaztear zeuden oroitzapenengatik topa egiten geundela, unearen gazi-gozoan, burua altxa eta parez pare ikusi zintudan lehen aldiz, dotore, erakargarri, kriketen artean kriketen. Begirada hark zerbait irauli zuen nire barruan. Arnasa estutu, bihotz taupadak azkartu eta masailak gorritu zitzaizkidan heldutasun goiztiarraren lehen une horretan. Nire arreta hasieratik piztu zenuen, baita lehendabizi inor ukitzeko desio kontrolaezina ere. Zure kolore, zapore, ikuspegi, ñabardura eta aldaera guztiak deskubritzeko gogoaz piztu zitzaidan.

Aitona nekatuta zegoela aitzakia moduan hartu eta bukatutzat eman genuen ospakizuna. Festaren aparrik ez zen jada; inoiz distirarik izan bazuen, ahituta zen horrez gero. Heldutasun berriak piztutako ausardia lagun, etxekoei agur esan bezain fite, zuri kaixo bat luzatu nizun. Agur lasai eta patxadatsu bat eta kaixo urduri eta temati bat aldi berean, bizitza bera ere horrelakoa delako: joan-etorri, gutxi-asko eta gora-beheraz betetako bidea, nahi beste ikuspegi, ñabardura eta aldaera kontrajarriekin. Hitzetik hortzera erantzun zenidan, nire agurra itxaroten bazeunde lez. Elkarriketaren emaria aberatsa izan zen, bata bestearen egarri geunden seinale. Eta zugandik edaten hasi nintzen. Zu eta bion artean jario bat zegoen, etenik gabea, bata bestearentzat sortuta egongo bagina bezala, nire interesak, kezak eta beharrak jadanik ezagutzen zituen aspaldiko laguna bazina moduan. Zure ahotsarekin deskubritu nuen himnosia; zure eskuetan ikasi nuen grabitatea; zure begiradarekin, distantziaren eta perspektibaren arteko sinbiosia; zure azalarekin, mapetako sestra-kurbak ulertzen; eta zure gorputzak, berriz, irakatsi zidan ekia nondik azaleratzen eta ezkutatzen den egunero.

Ospakizun eguna eta gero, gutxitan banatu ginen. Bata bestearekin egoten ginen ahal beste. Oharkabeen orduak eta orduak ematen genituen elkarrekin. Loari ere lapurtzen genizkion tarteak. Aitonaren azken asteetan, elkarrekin ematen genituen bisita eta zaintza orduak. Une horietan guztietan ase eta bete, bete eta ase sentitzen nintzen zurekin. Ez nuen ezer gehiagoren premiarik. Aitzitik, elkarrekin ez geundenean, ez nekien zure hutsunea nola bete. Jakin badakit egunak ez direla egun gaurik ez balego; orekarik ez dela Yin eta Yang, biak ala biak, izan barik; ilargiari ere eguzkiak ematen diola argia; eta zuriak beltza behar duela. Eta bai, zu gabe egotean, Yin edo Yang falta ziren. Ilargiak ez zuen eguzkiaren argitasunik islatzen; beltza zen gaua... eta eguna. Zu behar zintudan oreka lortzeko, aurpegian irria agertzeko, osotasuna izateko.

Egun batzuk pasa dira jada aitonari behin betiko agur esan geniola eta gaur izan dut lehenengoz bere logelan sartzeko kemena. Egiari zor, kemena eta ausardia ez ezik, beldurra eta arnasestua ere; norberak eman diezaiola nahi duen aldaera. Kemenez, ausardiaz, beldurrez eta arnasestuka, horrela sartu naiz gelan. Ospitalerako bidea hartu zuenean utzi bezala dago: hamarkadetan mugitu ez diren koadroak hormari josita, esekitokian bere gustuko laukidun alkandora, mahaian egun hotzetarako txapela eta mesanotxean irakurtzeko zerabiltzan betaurrekoak. Umetan eskolatik autobusa hartuta museo edo aterpetxeetatik zehar egiten genuen bezala, kemenez, ausardiaz, beldurrez eta arnasestuka gelatik barrena txangoa egin dut. Koadroak arretaz aztertu, aitonaren usaina zerion alkandora usaindu, txapela jantzi eta, begiak lanbrotuta, ohean etzan naiz. Sabaiari begira, eskua luzatu eta betaurrekoak hartu ditut. Eta jantzi.

Aitonaren koadroetako istorioak gogoan, alkandoraren usaina nire baitan eta txapelaren berotasunarekin, betaurreko horietatik hasi natzaio gure harremanari begira. Aitortzen dizut lehen aldiz izan naizela gai burua altxatzeko eta gureari dagokion doinu eta neurrian kantatzeko. Betaurreko horietatik, konturatu naiz aitonaren azken asteetan berari behar bezalako arreta eskaini baino, zurekin elkarrekintzan pasa nituela zaintza uneak. Eta damu naiz. Damu naiz beste agur bat merezi zuelako. Damu naiz orain arte ez dudalako ikusi zuregandik harago. Zurekin ase eta bete, bai, baina munduaren bestelako kolore, zapore, ikuspegi, ñabardura eta aldaera guztiak baztertu ditut. Itsututa nengoen zure pantailan agertzen ziren bideo laburrekin. Entzungor egiten nien zure jakinarazpenak ez ziren soinuei. Zure jolasak soilik dastatzen nituen eta zure 5,7 hazbeteetan ez zirenak automatikoki baztertu. Zure 105 cm koadroko azalera ukitzearekin nahikoa neukan, etxekoen eta lagunen besarkada maitekorrei bizkar emanda. Ez nuen zu besterik usaintzen. Nire droga izan zara eta ni, berriz, zure jonki hutsa. Denbora lapurtzen nien betiko lagunei zurekin egoteko. Etxekoekin nengoela zirudienean, burua zurekin zegoen; jendearekin nengoenean, zu patrikatik ateratzeko irrikan. Eta horrela eman ditut azken bost urteak. Nire aitonaren, azken, bost, urteak!

Nahiko nizuke behin betiko agur esan, baina ezin dut. Aitonaren betaurrekoek erakutsi didate denbora behar dudala gurea neurrira ekartzeko; denbora zuregandik harago ikusteko, entzuteko, ukitzeko, dastatzeko eta usaintzeko; denbora munduko kolore, zapore eta ikuspegi guztiak aske, menpekotasunik gabe, deskubritzeko; denbora burua altxatzeko. Eta gureari beste doinu eta neurrian abesteko. Beraz, ez da agur gutuna, gurea osasuntsua egiteko eskaera baizik.

Atsegin dut batekin erantzungo duzulakoan: gero arte, laztana.